

Xipri Anbeleside

APAIZA ETA IDAZLEA

Baitezpadako telefonoa

Uda honetan itzuli bat egin dut, duela 40 urte ezagutu nuen Burkina Fason. Haute Volta deitzen zen garai haietan.

Uagadugu hiri nagusian ohartu naiz, lehenagoko txirrindulen erdiak, mobilitate ordezkatu dituztela: hemen beribil bezainbat Yamaha bada han. Konguzi, nindoan hiria 100 kilometrotan baitzen, bidea asfaltatua zen: orotara 2.500 km dira asfaltatuak! Autobusean, 5 aulki lerro bakoitz eta ez 4! 1970ean, 4,5 milioi bizilagun ziren, orain 15 milioi. Emigratuak bestalde: 3 milioi Bolikostan berean. Bizi esperantza 50 urtez beheitikoa –hemen 80 ingurukoa–. Barne produktu gordina jende bakoitz: 483 \$; Frantzia 40.000 \$, Espainia 30.000 \$.

Rissiam deitu herrian pasatu baitut denborarik handiena, ez zuten argi indarririk, beraz ez zen ez hozkailu ez telebistarik: edaria 30-40 gradutan edaten zen –nuen!– eta gauaz ez zen ez estalki ez mihise beharrik. Haiek gabe izerditan.

Nire lagunaren semeak batxiler diploma pasatua baitzuen, klasean 84 zirela erran dit. Diploma eskuratu dutenak 40z petik. Ez baita harritzekorik baldintza horietan.

Lehen euriak izanak eta, arto ereiten ari ziren, gehienak jorraia ttipi batekin. Zenbait, asto edo metro bat gorako behitto batekin tiratu golde nabarrekin.



DANI BLANCO

Ur edangarria zuten, zuloak eginak baitzituzten ura ukaiteko, baina inork ez zeukan urik etxean. Komunak zeuzkan etxe bakarrean nintekeen.

Giza gaizoak! Zer miseria! Ba ote dakite zer den zoriona, gogoeta zaude, irakurlea. Bai! Eta guk baino hobeki. Hemen baino irri gehiago ikusten duzu eta kopeta zimurtuak askoz ere guttiago. Han daukazue froga, kontsumismoa ez dela zorionaren baldintza. Gizonak jan behar du, edan, lo egin eta abar, baina garapena segurtatzeko sortzen dizkiguten “beharrak” oro gehiegikeriak dira; lurraren hondamenera garamatzate AHT, hegazkin supersoniko, beribil, negu minean jan Keniako marrubi edo sake-lako telefonoak.

Ahazter zait. Sartuak dira haiek ere kontsumismoan. Erizain edo medikurik ez dute, irakasleak guttiegi, baina beharrena badute: sakelako telefonoa. Den herri tipienez badi-ra, bateriak kargatzeko hirirat joan behar badute ere. Garapena, zer uste duzue dela! Samsung, Nokia eta bestek beren telefonoak saldu behar dituzte. Telefonoaren beharra sortzeko nahiko publizitatea egin dute, hor sartzen den dirua beste nonbait eskas izanez, leher eginen badute ere. Gure ekonomia sistemak du ez leher egin behar. Gu bizi gareno! Gero... Hor konpon! ■

Zuzenketa: 2.202 zenbakian, Julen Azpeitiaren *Bolonia* artikuluan “eraiketa hutsean” agertu zen, egileak idatzitako “eralketa hutsean” beharrean.

TXANDAN

Juan Ramón Makuso

Hamasei urte



“Zure bizitzaz etengabeko aipamenak entzun behar izatea, ez da erraza. Eta behar bada, beti bezala, benetakoz, ezer ez”. Hauek izan ziren, tabernako mostradorean, entzun nituen hitzak. Gizasemezkoa zen, berrogei urtetik gorakoa; bere aldamenean nerabe bat. “Aita, nik asteburuan Antoinen etxera joan nahi dut, Hendaia”. “Eta han zer egin nahi duzue?”. Hitz hauek nire kezka piztu zuten. Ardoa eztarritik ezin pasa geratu zen. Hau bai izan zela betikoa, baina ez benetakoa. Bi gazte elkartu behar baldin badute, are

gehiago, bitako baten etxean, akabo! Larrua jotzera doaz! Ez da harritzekoa hau guztia. Egun, zinean, erlazio bat beti koitoan oinarritzen da. Sarritan irudiak, igogailuetakoak, arropa dendetako aldageletakoak, izaten dira. Zer esanik ez telebistako gazteentzako egindako serietan. Ni dezente ibiltzen naiz igogailuetan; edo gustukoa dut Zarako dendetatik erosketak egiten ibiltzea, eta horrelakorik ez dut topo egiten. Aitaren hitzak berriro nire buruan, “benetakoaz, ezer ez”. Sexua ez da soilik larrua jotzea. Pentsatu sehaskako haurrengan. Edo zaharregan. ■